

TAILERRAREN INFORMAZIO GIDA

ARLOA: IRAUNKORTASUNA

TAILERRA: ZABORRETARAKO MATERIALAK: URREZKO 3 ARAUAK

1. Helburua

Gure hondakinak osatzen dituzten materialak, horien osaera eta motak ezagutzea eta bereiztea. Baita oinarritzko 3 hauek ezagutzea ere: MURRIZTU, BERRIZ ERABILI ETA BIRZIKLATU.

2. Edukiak

- Gehien sortzen diren hondakin solidoak:
 - Motak
 - Ezaugarriak
 - Sailkapena
- Kontsumo-ohituren ondorioz eta hondakinen tratamenduetatik sortutako ingurumen-arazoak eta ondorioak. Natura-baliabideak gehiegi ustiatzea (desertifikazioa, deforestazioa, biodibertsitatean kalteak, baliabideak ahitzea...); lurzorua, lurra eta airea kutsatzea, eta horren ondoriozko arazoak: euri azidoa, berotegi-efektua, ozono-geruza txikitzea...
- Alternatibak: MBB
 - Murriztu
 - Berrerabili
 - Birziklatu
- Hiru pauso horien onurak ingurumenari dagokionez.
 - Ura eta energia gutxiago erabiltzea.
 - Gai kutsatzaileak gutxitzea: ura, airea eta lurra.
 - Sortutako hiri-hondakinen bolumena murriztea.
 - Natura-baliabideak zaintzea. Hainbat espezieren habitata.

3. Ariketak

3.1. Aurretikoa

Ikasleek beren erosteko, kontsumitzeko eta horren ondoren hondakinak tratatzeko ohiturei buruzko galdesorta bat egingo dute Kontsumobideren Prestakuntza eta Informazio Zentrora joan aurretik, tailerra egin aurretik gaiari buruzko sarrera gisa eta aldez aurreko hausnarketa gisa balioko diena.

ZABORRETARAKO MATERIALAK. URREZKO 3 ARAUAK

1. Zure ustez, zuen etxean hondakin asko sorteen dira?
 - Bai
 - Ez
2. Zuen etxean, astean zenbat aldiz botatzen duzue zabor-poltsa?
 - Egunero
 - Astean 2 edo 3 aldiz
 - Astean 4 edo 5 aldiz
3. Zuen etxean zenbat zaborrontzi daude? Zer sartzen duzue ontzi bakoitzean?
 -
 -
 -
 -
 -
4. Ba al dakizu hondakinak nora eramaten diren edukiontzietan sartutakoan? Baiezkoa erantzunez gero, adieraz ezazu
 - Bai
 - Ez

5. Hondakin guztiak sartzen al dituzue ontzi horietan?
 - Bai
 - Ez. Adierazi zeintzuk ez: _____

6. Jarraian, marka itzazu gurutze batez eguneroko erosketak egiteko garaian kontuan izaten dituzun alderdiak:

- Orga edo oihalezko poltsak erabiltzen ditut ohiko erosketak egiteko.
- Ahal dela, ontziratu gabeko edo solteko produktuak erosten ditut.
- Bilgarri gehiegi ez dituzten produktuak erosten ditut.
- Produktu galkorrak (esnegaina, esnea...) ontzi txikitan erosten ditut, edo premiaren arabera.
- Produktu iraunkorrak (ura, olio...) ontzi handitan erosten ditut.
- Beirazko ontzietan sartuta dauden produktuak erosten ditut..
- Suelo adquirir productos que presentan envases que puedo volver a utilizar
- Detergente kontzentratuak erosi ohi ditut.

7. Behin baino gehiagotan erabiltzen al dituzu zenbait proukturen ontziak? Esate baterako, botilak, potoak, kaxak...

- Bai. Zeintzuk:.....
- Ez

8. Zure ustez hondakin gutxiago Portu beharko al genuke? Zergatik?

- Bai
- Ez

9. Ba al dakizu zer anura lortzen dugun murrizketaren, berrerabileraren eta birziklatzearen bidez?

3.2. Tailerrari dagokionez

ARIKETA 1: ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK URREZKO 3 ARAUAK?

Egungo hondakinen tratamenduaren arazoen gaineko sarrera laburra eta 3R-en garrantzia.

ARIKETA 2: ZER EGIN DEZAKEGU HONDAKINEKIN?: MBBREN PAUSOAK

Jarduera honetan MBB (hau da, murriztu, berrerabili eta birziklatu) aztertuko da. Talde handia bitan banatuko da eta jarduerak jolas edo lehiaketa moduan egingo dira; probetan puntuak lortuko dituzte.

Murriztu: Oroimen-joko baten bitartez, ikasleek eguneroko bizitzan murrizteko moduak ikasiko dituzte.

Berrerabili: Ikasleek benetako produktuak berrerabiltzeari buruzko ideiak emango dituzte.

Birziklatu: "4 errenkadan" joko euskarri gisa erabiliz, birziklatzeari lotutako alderdi garrantzitsuak ezagutuko dituzte ikasleek.

4. Gaitasunekiko lotura

4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

| | | | |
|------------------------------|--------------------------------------------------------|-----------------------------|---------------------------|
| Izaten ikasteko konpetentzia | Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia | Matematikarako konpetentzia | Zientziarako konpetentzia |
| ✓ | ✓ | | |

| | | | |
|-----------------------------|-------------------------------------------------|-----------------------|----------------------|
| Teknologiarako konpetentzia | Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia | Arterako konpetentzia | Konpetentzia motorra |
| | | | |

4.2. Beste talde batzuk

| | | | |
|----------------------------------------|------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna | Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna | Matematika-gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean | Gaitasun digitala |
| ✓ | | | |

| | | | |
|--------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------|-----------------------------------------|---------------------------------------------------|
| Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia | Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia | Elkarbizitzarako konpetentzia | Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia |
| | ✓ | ✓ | |
| Ikasten ikasteko gaitasuna | Gaitasun soziala eta zibikoa | Ekimenaren zentzua eta enpresa-espirtua | Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena |
| ✓ | | | |

5. Baliabideak

Informazio gidak

- KONTSUMITZAILE ETA ERABILITZAILEAREN GIDA. Eusko Jaurlaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2007.
- KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. 2009



Material didaktikoak

- KONTSUMITZAILEAREN HEZKUNTZARAKO 133 TAILER. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritza. 2004.
- KONTSUMITZAILE GAZTEA CD-ROMA. Kontsumitzailearen Heziketarako Sarea. 2001

Web-orriak

- KONTSUMOPOLIS IZENEKO LEHIAKETAREN WEBGUNEA
<http://www.consumopolis.es/fichasniv2.aspx?idioma=cas&b=C>

Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus